

# ORERETAKO INDUSTRIA GOGORATUZ.

*Jose Luis Insausti Urigoitia*



*Santa Fe Lokomotora.*

Oarso Aldizkariko Idazkari Lantaldearen gonbidapena jaso nuenean, bertan eta lantzeko beste gai batzuen artean, Oreretako Industriaren historia eta garapena azaltzen zen. Txikitan lantegi askoren inguruan bizi izandako eta ikusitako guztia etorri zitzaidan arrapaladan burura, baina batez ere aitona-amona, gurasoen eta beste senide batzuen etxeetan entzundakoa. Orduan esan nion neure buruari: Badaukat aurtengo aldizkarirako artikuloa!

Gogoratzen naiz txikitan aita, aitona, osaba, izeba, ... laguntzen nituela lan egiten zuten lantegietara joaten, besteak beste, Jose Leon Uranga, Tejidos Lino, Olibet, Etxeberria-Pekin, Esmalteria, Papelera, Cafeteras Omega.

Horregatik esaten nuen lantegi hauetan izandako bizipenek eta bildutako dokumentazioak batetik, orain dela urte batzuk historia industrialari buruz egin nuen azterketa bestetik, industria gure herrian izan zena Oarsoko orrialdeetan isladatzeko aukera ematen zidan.

Gertatzen dena da, askotan ez dela erreza izaten lantegi guztiei buruzko dokumentazioa aurkitzea. Udal Artxibategira joan nintzenean kontsulta batzuk egitera izandako lantegiei buruzko informazioan dagoen hutsune nabarmena ikusi nuen. Baina 1950tik aurrerako guztia nahiko osatua dagoela ere, esan beharra dago.

Dena den, badugu bestelako artxibategia, lehenengoa baino askoz aberatsagoa, hau da, gura arbasoak, horiexek baitira historia hori bizi izan dutenak. Ni saiaturen naiz beraien aportazioak kontutan hartzen, oso garrantzitsuak izaten baitira. Hau esaten dut, orain dela urte batzuk herriko zenbait pertsonari egindako kontsultek emandako esperientziarengatik; baina batez ere neure amari egindakoengatik; bere belaunaldia zoritxarrez pixkanaka pixkanaka joaten ari zaigu betiko.

Oarso Aldizkarian Oreretako Industriak lehenik ere beste aipamen batzuk izan ditu, baina gehienetan ezagunenak baka-rik aipatzen dira, bai beren aintzinasunarengatik edo bere garaian lortutako ospearengatik. Hala ere, gure herriko Historia Industrialia oso aberatsa da, enpresa horien kantitatea zein barietatearengatik; horrexegatik deitzen zitzaion Manchester txikia.

Horrexegatik Oarsoko orrialdeetan Oreretan izandako beste lantegi garrantzitsu baten berri eman nahi dizuet, hau da, Cafeteras Omegaren berri.

Magdalena kalea eta bere inguruan bizi ginenok oraindik gogoratzen dugu zer izan zen enpresa hori eta bere kafeontzi askorentzako modeloak. Nik azken garaietan ezagutu nuen baina hala ere 1905tik aurretiko aurkezpena egiten saiaturik naiz; dena den kasu hau sakonki aurkeztu baino lehen historian



Argazki familiarra. Francisco Urbe Irigoien, bere emaztea Juana Peña Iriarte, seme-alabak: Rafael, Francisco, Juani, Mª Jesus eta Mª Luisa.

zehar izandako aurrerapenak eta beste enpresa batzuen azterketa egiten saiatuko naiz, eta ahal bada, Oreretako Industriaren inguruan zerbait erantsi.

#### Historia:

Industriaztapenaren hasiera, Oreretan ia XVI mendetik Añarbeko burdinolarekin hasi zen; Gipuzkoako onenatzat jotzen zuten. Edo Fanderia, benetan mirespena sortu zuena garaiko enpresarioetan.

1845ko Irailaren 24an, Oreretan lehenengo enpresa modernoa kokatzen denean, hau da, Tejidos Lino, herria nekazaritzari esker bizi zen eta oso xumea zen. Aurretik bizi izandako gerrarengatik oso une kritikoan zegoen herria, bazeuden etxe zaharrak, orube abandonatuak, e.a. Baina laster hasiko ziren gauzak aldatzen, aipatutako lantegiaren lehenengo urratsekin batera, 1901ean 265 langile baitzituen; orduan Lantegi Haundia izenez ezagutzen zen herri mailan.

1855ean Salvador Etxeberriaren Tejidos Lino fabrika hasi zen lanean; 1857an Sorondorena; 1858an Gamon anaiena; 1859an Asturiaseko Meategi konpainia; 1861ean Saturnino

eta Timoteo Arizmendiren Larruki fabrika eta La Iberica; 1866tik Olibet gailetak egiten zituena.

Azken Karlistada zela eta, 1872an, herria krisi gorrian sartu zen eta Sorondo fabrika desagertu zen. Gerra garaian Asturiaseko Meategi konpainia itxi zen eta 1873an karlistek Fanderia erre zuten.

Gerra bukatu ondoren berpizte txiki bat hasi zen eta enpresa batzuk irekitzen dira. Adibidez, 1899an Fabril Lanera, 1889 Papelera Vasco Belga; baina urte horretan berriz berpizte hori gelditu zen krisi batengatik eta Gamon Anaiak Lantegia itxi zen. 1890ean krisia behin gaindituta eta Asturiaseko Meategi Konpainia irekita enpresa hauek hasi ziren hazten eta beste enpresa batzuk irekitzen.

1903an lehenengo Industria erakusketa ospatu zen Viteri eskoletan, 14 enpresa erakusle azaldu ziren, beste batzuk ere bazeuden arren. Urte hartan 2.800 biztanle inguru zeuzkan Oreretak.

Beste arazo larri bat: 1933ko uholdeak izan ziren, galera haundiak sortu zituzten Fabril Lanera, Esmalteria, Papelera, Jose Leon Uranga, Niessen, eta beste batzuetan. Itxirik egon behar izan zuten tresneri guztiak berreskuratu arte eta lantokiak garbitu arte. Zer esanik ez, enpresa txiki eta ertainetan.

1954ko Uztailaren 22an, Lapaza Jauna alkatea zenean, bigarren industria erakusketa egin zen Viteri eskoletan, oraingoan 51 erakuslekin. Bi erakusketen daten artean, 1903tik 1954ra, lehenengo enpresa eta tailer bakoitzeko orain hamar gehiago zeuden.

Alkateak bigarren erakusketaren egunean Orereta, bere biztanlegoa kontutan hartuta, 15.000 baino gehixeago, Europako hirien artean industria dentsitate haundiena eta barietate gehien zeukana zela esan zuen: 149 enpresa baitzituen, horien artean batzuk oso garrantzitsuak.

Ikusten dugunez industria arloa oso garrantzitsua da Oreretan aspaldidanik. Hemen baliabide naturalak aprobetxatuz hazi eta luzaroan mantendu ziren enpresak hasi ziren, mea hustiak tarako erabiltzen zirenak, adibidez, beruna, albaialde, zink, minio e.a. gero xafia eta hodian lantzen zirenak. Honetaz gain, papelera prentsarako papera eta bese mota batzuekin, Fabril Lanera bere estamine eta artilezko hariekin, arti-



1925.

lezko eta jantzitarako tintoreriarekin, Niessen bere isolagarri famatuekin, interruptoreekin, e.a. Linozko harien eskulanak, maindireak, burkoak, e.a. Baina garrantzitsuena Olibet gaileta fabrika izan zen, bere Maria gailetarekin, bizkotxoekin, ...

Hari zor diogu Galletero izengoitia Oreretakook.

Artikulo batean zaila izaten da industriaren garrantzia datu zehatzez isladatzea eta Oreretako lantegietan fabrikatu ziren produkto guztien berri ematea baina laburpen txiki baten bidez garai hartako produkto batzuk aipatuko ditut:

Papera-lihozko hariak-artileak-moldatuak-altzairua-alkohola-gailetak eta legamia-botoiak-lurrinak-arrosarioak-larruak-altzairuak-torlojugintza-material elektrikoa-espartinak-sukaldeko tresneria-litografiak-egurrak-burdin hariak-marmolak-berunazink-betunak-pinturak-kafeontziak e.a.

Ezin dugu ahaztu hezkuntza industrialean maisuak izan ziren profesional batzuek prestatu eta bideratutako langilegoa, ezta profesional horiek sortutako Lanbide Hezkuntzarako Eskolak ere: La Asuncion eta Don Bosco. 1965ean Oreretak 216 enpresa zituen, haundiak, ertainak eta txikiak kontatuta.

### Emakume langilea Oreretan

Urte guzti hauetan guztietan zehar gure herriko lantegietan lan egin zuten emakumeekin hitz egin izan dudana eta garai hartako fitxetan irakurri izan dudana kontutan hartuta ezin dut aipatu gabe utzi emakume hauek egindako lan itzela.

Gure herriak bizi zuen ongizate ekonomikoaren sortzaile garrantzitsuenetakoa emakume hauen lana zen. Herrian zeuden industria anitzek emakumeen esku trebeentzat normalean egokia izaten zen lana eskeintzen zieten.

Esaten zidaten nolako trebetasun, abiadura eta maisutasunez paketatzen zituzten gailetak, torlojuak sailkatzen zituzten eta ehunak iruten zituzten. Izan ere, segituan trebatzen ziren agindutako lanean. Bere monotoniarengatik pazientzia eta kontu haundia eskatzen zituzten lanetarako, gaur egunean ere berdin gertatzen da, emakumea ordezkazina da.

Baina horretaz gain, lanera joaten zen eta da aurretik etxe-ko lanak egin ondoren. Izan ere, emakumearentzat bere lanaren bitartez bai berarentzat eta bai bere ingurukoentzat bizi-modua ateratzea harro izateko arrazoi nahikoa izan da beti.



Cafeteras Omega, 1951.

## ENPRESA BATZUEN DATUAK

### Olibet gaileten Iberica Lantegia

#### Langile populazioa

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 69	Gizonezkoak, 59
Emakumezkoak 83	Emakumezkoak 56
Adin-txikikoak 5	Adin-txikikoak 29

#### Batezbesteko lansaria

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 8,50 pta.	Gizonezkoak 8,50 pta.
Emakumezkoak 4,90 pta.	Emakumezkoak 4,90 pta.
Adin-txikikoak 4,50 y 3,50	Adin-txikikoak 4,50 y 3,5
Oinarrien arabera	Oinarrien arabera

#### Hileko ekoizpena

1936ko ekain. aurr.	Abuztua, 1937
Hileko ekoizpena 42.051 Kg.	59.111 Kg.
Hileko ekoizpena 172.339 pta.	Balioa: 215.561 pta.

Enpresa: Sociedad Anónima La Ibérica. Zuzendaria. 1937ko abuztuaren 23a.

### José de Orueta S.A. Altzairu-fabrika.

#### Langile populazioa

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 71	Gizonezkoak 5
Emakumezkoak 0	Emakumezkoak 0

#### Batezbesteko lansaria

1936ko ekainaren aurrekoa	Agosto, 1937
Gizonezkoak 9,25 pta.	Gizonezkoak 9,25 pta.

#### Hileko ekoizpena

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
250 tona	Langabezia.
89.000 pta	-

Enpresa: José de Orueta  
1937ko Abuztuaren 30a

### Oarso Papelera

#### Langile populazioa

1936ko ekainaren aurrekoa	Agosto, 1937
Gizonezkoak 155	Gizonezkoak 20
Emakumezkoak 9	Emakumezkoak 4
Adin-txikikoak 1	Adin-txikikoak 1

#### Batezbesteko lansaria

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 8,60 pta.	Gizonezkoak 9 pta.
Emakumezkoak 5,17 pta.	Emakumezkoak 5,25 pta
Adin-txikikoak 5 pta.	Adin-txikikoak 5 pta.

#### Hileko ekoizpena

1936ko ekainaren aurrekoa	Abuztua, 1937
1.326.000 Kg. papera-prentsa	0Kg
557.000 Kg.	0 Kg.

Lantegi honetako makinak 1936ko uztailaren 18a ezkerotzik, gerra hasi zenetik, eta egungo langileek geratu zen papera lantzen ari dira.

Oarso Papelera  
1937ko abuztuaren 24a



Cafeteras Omega-ko langileak. 1943ko ekaina.

## CAFETERAS OMEGA

1905. urtean Rafael Uribe Iriartek, bere anaia batek lagunduta, Argentinara egindako bidai batean kafeontziak zer diren deskubritu zuen. Lur haietan gelditu eta kafeontzi enpresa txiki bat jarri zuten taberna, jatetxe eta kafetegiei zuzenduta.

Baina 1916an Rafael Euskal Herrira itzuliko zen. Hasiera batean Donostiako Gros auzoan kokatu zuen enpresa, 1920an Mirakontxara leku aldatu zuen eta hortik 1928 inguruan Oreretara. 1930eko Urriaren 13an Mugaren Hiribidean kokatuta zegoen aterki lantegi zaharraren etxebizitzak, pabeilioa eta lur sailak erosi zituen.

Egun haietan Francisco Urbek, Rafaelen semeak, Cafeteras Omega enpresaren ardura bere gain hartu zuen.

Enpresak Cafeteras Omega izena izan zuen beti eta erregistratutako eta patentutako kafeontziak beren aintzintasunaren arabera Minerva-Delta eta Omega izan ziren, guzti horiek Oreretan eginak.

Cafeteras Omega lantegiak Gipuzkoar industriari harro egoteko arrazoiak eman zizkion eta bere alorrean lehenengoa eta famatuena izan zen zalantzarik gabe.

Kafeontzien fabrikazioan erabiltzen ziren materialak goimailakoak ziren eta elementu berrienak teknika aurreratuenekin tratatzen ziren. Francisco Urbe egunez egun funtzionamenduaren hobetzeaz eta egokitzeaz arduratzen zen.

Francisco Urbe ezagutu genuenok eta bere langileak, Damaso Salaberria eta Fidel Burugain kasu, berataz hitzegiterakoan kafeontzien fabrikaziorako erabiltzen ziren tekniketetan oso gizon argia bezala definitzen dugu. Metalgintzan ere aditua zen, baina gauza denen gainetik, besteei laguntzeko beti prest zegoen bihotz oneko pertsona izan zen.

Nik pertsonalki Francisco Urbek, Juana Peña Iriartek eta beraien seme-alabek osatzen zuten familiaz oroimen ezinohoa daukat. Beraien etxea gurea zen; oraindik gogoratzen dut beheko solairuan bulegoak zeuzkatela, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarrenean ganbara. Magdalena, Castaño eta inguruko kaleetan jaio garenok ganbaran eta lur sailetan jolastu ginen.

Baina Cafeteras Omegak, beste enpresek eta gizarte osoak bezala Guda zibilaren ondorioak pairatu zituen. Ordurarte Enpresa errendimentu handiz ekoizten ari zen eta kafeontzi modelo berri bat zeukan merkatuan.

Ondoren azaltzen diren datuak 1937ko irailaren 25ean egindako txosten batzuetatik aterak dira. Txosten hauek Gipuzkoako Lurraldeko Lan Ordezkaritzak eskatu zituen.

### Cafeteras Omega Kafea egiteko makinaren lantegia

#### Langile populazia

Martxoa, 1936	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 43	Gizonezkoak 9
Adin-txikikoak 8	Adin-txikikoak 2

#### Batezbesteko lansaria


Martxoa, 1936	Abuztua, 1937
Gizonezkoak 10,45 pta.	Gizonezkoak 10,30,- pta.
Adin-txikikoak 3,75 pta.	Adin-txikikoak 3,12 pta

#### Makinak

Martxoa, 1936	Abuztua, 1937
mota ezberdineko 105 makina	mota ezberdiniko 15 makina

#### Hiruhileko ekoizpena

Martxoa, 1936	Abuztua, 1937
266.988,25 pta.	30.090 pta.
Urtarrila-Otsaila-Martxoa	Ekaina- Uztaila-Abuztua



Datu hauek ikusita, 1936ean 1937an baino askoz makina gehiago zeudela oharren gara. Txostenaren atal batean honako oharra azaltzen da:

**Oharra:** 5 tornu errebolbera, tornu mekaniko bat eta metala ebakitzeko zerra mekaniko bat Militar Aginteak bahitu zituen gerrarako materiala fabrikatzeko. Makina hauek Zaragoza, Donostia eta Pasaiako lantegi ezberdinetan sakabaturik daude. Beste makinaren berririk ez dago.

1937ko Irailaren 25ko Agiria

Damaso Salaberriak Cafeteras Omegan lan egin zuen 1934 urtetik jubilatuta arte. Begietan malkoak zituela enpresaren eraispenarengatik jasan behar izan zuten egoera penagarria kontatu zidan. Harro harro bitxikeri bat komentatu zidan. Lantegian zegoen tornurik hobereena ezin izan zietela kendu, piezaz pieza desmontatu, hauek markatu eta koipe iraunkorra eman ondoren lantegiaren lur sailetan lurperatu zuten.

1938ko Otsailean Cafeteras Omegak 21 langile zituen nominan baina kafeontzien fabrikazioa oraindik txikia zen eta metalgintzako lan ezberdinak

egitera behartuak zeuden. Francisco Urberen kafeontzien diseinu berri bati buruzko ikerketek laister izan zuten bere saria, harrera oso ona izan baitzuen eta eskaria handia zen. Gipuzkoan kafeontziak zabaltzen dira, Bizkaian, Nafarroan eta beste leku askotan bezala.

Cafeteras Omegako langilea zen Fidel Burugainek Jesus Alveroren laguntzarekin Santa Fe marka zuten lokomotorak, beren wagoiekin, errailak, zubiak, tunelak, ibaiak etab. egiten zituen izugarritzko maketa bat osatuz. Maketa hau Donostiako Udaletxeko beheko solairuetan erakutsi zuten. Diseinua Francisco Urberena zen, hau baitzen bere hobbya. Omega enpresaren barruan miniaturazko makinaren lanak egiteko atal bat zegoen. Bertan Alverok egokitzalearen lana egiten zuen eta Fidelek tornulariarena. Behin, Trenbideetako enpresatik lokomotora batzuk konpon zitzaten deitu zieten eta beste behin Herreran Talgoa geldituta egon eta konpontzera joan behar izan zuten.

Erakusketa egin ondoren, sekulako arrakasta izan zuten eta enpresa-gizon askok lokomotorak eta maketak erosi nahi dituzte. Baina 50. hamarkadan italiar kafeontziak azaltzen dira eta hauek kompetentzia handia suposatzen dute Cafeteras Omegarentzat. Francisco Urbek Fidel eta Jesuseri, garrantzitsuena enpresa dela, esaten die eta langile guztiak kafeontzien fabrikazioan zentratu behar dutela agintzen die. Gauzak horrela lokomotoraren tailer txikia desagertu zen.

Behin pabilioien handitzea egin ondoren enpresak bolumen handia dauka eta hauek dira bere lan atalak: moldategia, torlojutegia, muntaketa, labandura eta kromaketa. Omega oso eskola ona izan zen gazte askorentzat eta beste enpresetatik ofizialeen bila joaten ziren.

60. urtean egiten ziren kafeontzien modelo berriek oso harrera ona izan zuten merkatuan. Eskariak leku ugartik etortzen ziren: Sevilla, Katalunia, Zaragoza, Granada, Asturias, Madril, Santander eta beste eskari garrantzitsuak Kubatik, Mexikotik eta Nueva Yorketik.

70. hamarkada arte modelo berri hauekin eskari handia izaten dute hostalaritzaren munduan sartu, nahi duten atzerritar marken aurrean.

1969ko Apirilaren 13an Francisco Urbe Irigoien hil zen, Cafeteras Omegaren jabea eta Rafael Urberen semea zena.

Francisco Urberen heriotzaren ondorioz Cafeteras Omega Elkarteak bihurtzen da eta 1974. urtean Andoainera trasladatzen da Cafeteras Omega S.A. izena mantenduz.

Oreretako OMEGA pabilioiak eta etxebizitza 1981eko Ekainaren 16an erauzi zituzten.

Laburbilduz, batek ezin dio bere buruari galdetu ea Oreretan zer fabrikatzen zen baizik eta zer ez zen fabrikatzen.

Ibilbide historiko-industrial honi bukaera ematen diot, batzuentzat beren haurtzarora eta gaztarora gogora ekartzeko balio izan duelakoan, eta beste batzuentzat gure herriaren historian lanak eta garapen industrialak gainditzeko zailak izango diren kotak eduki zituztenaren garaia imajinatzen balioko diela gogo eta itxaropenarekin.



Cafeteras Omega Lantegia.


### CAFETERAS OMEGAREN FAKTURA: 1940 URTEA

- Omega markako dutxulo bateko kafeontzia C.P.S. modelo 832 ZKIA.
- Gasolinako berogailua
- R.U.Y. berogailua 1go ZKIA. 4139 F.G. gasgailuarekin

### GUZTIRA 675 PZTA.

1942an Francisco Urbek pabilioia zabaltzeko planuak aurkeztu zituen Udaletxean. Trenbideetako enpresaren udal teknikariek txostenak ikusi ondoren Udaletxera jo zuen pabilioia zabaltzeko behar zuen baimena lortzeko asmoz. Zabaltze hau Frontera eta Donostiako Trenbidearen arteko lur sailetan egin nahi zuen. Zabaltze hau 1951eko Urtarrilean Antonio Zalduak arkitektoak egin zuen.

Francisco Urbe 1955 eta 1957 urteen artean Oreretako Udaletxean zinegotzia izan zen.



12 besotako kafeontzi zilindrikoa.